ZIUR FUNDAZIOAREN KOMUNIKAZIO PLANA EZARTZEKO ZERBITZURAKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN ORRIA (Exp. ZIUR2024-024)

I.- ZERBITZUAREN XEDEA ETA IRISMENA

2020. urtean definitutako Komunikazio Plana –ZIUR Fundazioaren (aurrerantzean, "ZIUR" edo "Fundazioa", bata zein bestea) helburu estrategikoak betetzekoa– ezarri eta garatzeko zerbitzuen kontratazioa da lizitazio honen xedea.

ZIUR Fundazioak, Gipuzkoako zibersegurtasun industrialean espezializatua den zentroak, gure lurralde historikoko industria enpresen gaitasunak -zibersegurtasunaren arloan- indartzea du helburu nagusi, eta industria arloko prebentzioa eta babesa bultzatzeko sortu da.

ZIUR Fundazioaren jarduerak honako ardatz nagusi hauek ditu:

- Zibersegurtasun industrialaren arloko ezagutza sortu eta partekatzea.
- Eragile eta enpresak sentsibilizatu eta trebatzea.
- Zibersegurtasun industrialarekin lotutako jardunbideen zabalkundea eta eskuragarritasuna.

Industria enpresen eskura prebentzio tresnak jartzea, hainbeste esfortzu pertsonal eta ekonomikorekin lortu dituzten ekoizpen prozesuak, izena, ekonomia eta jabetza intelektuala babesten laguntzeko.

Hala ere, Gipuzkoako enpresen testuingurua eta egoera dela eta, ZIUR Fundazioak, finkatutako helburuak garatzeaz gain, ahaleginak egin behar ditu zibersegurtasunak Gipuzkoako enpresen bilakaerarentzat duen garrantzia dibulgatzeko.

Kontua ez da bakarrik sektorearekin elkarreraginak izatea, edozein arazo informatiko prebenitzeko konponbideak bilatze aldera; horrez gain, segurtasunean inbertitu beharra nabarmendu behar da.

Testuinguru honetan, hain zuzen, esku hartzen du ZIUR Fundazioko komunikazio taldeak, balio kateko maila guztiak aipatu eta kontuan hartuko dituen Komunikazio Plana planteatu eta garatzeko. Izan ere, planak, ZIUR Fundazioaren jardueraren xede den enpresa eta industria eremuez gain, erakundeak, hezkuntza eta ikerketaren arloak eta gizartea izango ditu kontuan.

Komunikazio Plan horren garapenak bultzatu beharko du ZIUR Fundazioa lurraldeko zibersegurtasun industrialaren egoerari buruzko informazioa sortzearen erreferentzia bihurtzera. Gure arrakasta batez ere industria sareari eta, oro har, gipuzkoarrei egingo diogun ekarpenaren balio erantsiaren arabera neurtuko da: Enpresen heldutasun maila handitzea.

II.- DESCRIPCION DEL SERVICIO

Dokumentu honen lehenengo puntuan aipatutako kontratazioaren bidez, garatu nahi da 2020. urtean diseinatutako Komunikazio Plana* , helburu estrategikoak betetzekoa. Azken helburua hauxe da: komunikazio ekintzen ondorioz, ZIUR Fundazioa posizionatzea eta Gipuzkoan zibersegurtasun industrialaren estrategia ezartzea.

Hala ere, une hauetan, ZIUR bere irudia eta zerbitzuak (balio proposamena) posizionatzeari buruz hausnartzeko prozesuan dago, eta horrek mezuak interes talde desberdinen arabera egokitzea eskatuko dio.

* *ZIUR Fundazioaren Komunikazio Plana eskaera formala aurkeztuko duten enpresa lizitatzaileen eskura jarriko da, Konfidentzialtasun Akordioa sinatu ondoren. Komunikazio Plana eskatzeko, enpresa lizitatzaileek mezu elektroniko bat bidali beharko dute ziur@ziur.eus helbidera.*

Aipatutako zerbitzua emateak honako behar hauek estali beharko ditu:

II.1 Kanal anitzeko Komunikazio Planaren* garapena eta horren jarraipena

Komunikazio Planaren garapenak barnean hartuko ditu mezuak konfiguratzea eta planteatutako helburu eta ekintzak burutzeko beharrezkotzat joko diren komunikazio bideak dinamizatzea. Baliabide material guztiak, multimedia, prentsa, sare sozialak, web orriak, mota guztietako euskarri digitalak, inprimakiak, eskuorriak, triptikoak, eranskailuak, euskarri fisikoak prestatuko dira, baita planteatutako estrategiak burutzeko beharrezkotzat jotzen diren guztiak ere.

Komunikazio Planean honako komunikazio helburu hauek ezarri dira:

- ZIUR Fundazioa komunikabideetan askotan agertzea. Egutegia ezartzea.
- Hedabideekin, kazetariekin, bloggerrekin, influencerrekin… harremanetan egotea.
- Zibersegurtasun industrialaren gaian erreferentzia izatea komunikabideentzat; zibererasoei buruzko informazioa behar izanez gero, edota zibersegurtasunari buruzko erreportajeak eta elkarrizketak egiteko kontaktatzen den erakundea izatea.
- Xede publiko desberdinekin komunikazio jarraitua izatea, hainbat komunikazio tresnaren bitartez: newsletterrak, webak, segurtasunari buruzko buletinak, sare sozialak eta abar.
- Komunikazio kanal guztien koordinazio eraginkorra, komunikazio teknologia berriak hobeto erabiltzeko eta optimizatzeko.
- ZIURren identitate digitala garatzea.
- ZIUR Fundazioa hurbil eta eskuragarri egotea.

Balorazio ekonomikotik salbuetsita geratzen da kontratatutako kanpainen produkzio fisikoaren kostua: inprimaketa, eskuztatzea, bidalketak eta bestelako baliabide materialak.

Xehakatutako guztiaz gain, zerbitzuak barnean hartuko ditu komunikazio plataforma osoa mantendu, etengabe eguneratu eta dinamizatzeko lanak (ez dago barne plataformaren mantentze tekniko informatikoa).

Enpresa adjudikazioduna Fundazioaren Komunikazio Plana efikaziaz gauzatzeaz arduratuko da.

Enpresa adjudikaziodunak diseinatuko ditu bileren antolaketa, koordinazio metodologia, baita komunikabideetan, webguneetan, newsletterretan, sare sozialetan, SMS, mailing, aplikazioetan eta abarretan inpaktua kontrolatzeko eta jarraipena egiteko behar den dokumentazioa ere.

ZIUR-ek beretzat gordetzen du lan horietarako noizean behin beste enpresa batzuk kontratatzeko eskumena, proiektuen ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkoa denean.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua egikaritzean erabiliko diren produktu eta material guztien kopia entregatu beharko dio ZIUR Fundazioari, hark esandako euskarri eta formatuetan. Aurkeztuko diren material guztiak zuzenean editatzeko eta ZIUR Fundazioak egokitu eta ustiatzeko moduan egongo dira.

Finkatutako helburuak lortzeko, lizitatzaileak komunikaziorako ekintza-plan bat finkatu beharko du, xede publiko desberdinei zuzendutakoa; halaber, adierazle panel bat definitu beharko du, komunikazio ekintzen bidez eragindako inpaktua neurtu eta ekintza desberdinen jarraipena egin ahal izateko.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kontratatutako lanetik eratorritako jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideak ZIUR Fundazioari lagako zaizkio. ZIUR Fundazioak ustiapen eskubideak modu esklusiboan erabili ahal izango ditu, forma guztietan, bereziki, erreprodukzio-, banaketa-, jendaurreko jakinarazpen- eta eraldaketa-eskubideak; horiek ezin izango dira erabili ZIUR Fundazioaren baimenik gabe, Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan izan ezik, gaiaren inguruko indarreko lege-xedapenak arautu, argitu eta bateratuta, martxoaren 1eko 2/2019 Legeak egindako aldaketekin, eta aplikatzekoa den beste edozein legedi kontuan hartuta. Hirugarrenen eduki, elementu edo materialak izanez gero, horien erabilera eta ustiapen baketsua laga behar dizkio adjudikaziodunak ZIUR Fundazioari.

II.2 Komunikazio eta Prentsa Kabinetea sortzea

ZIUR Fundazioan ezarrita dagoen Komunikazio Planaren baitan, komunikazio gabinetearen figura definitu da, eta lizitazio honetan figura hori garatu beharra ezartzen da.

Komunikazio kabinetea Komunikazio Plana eta Social Media delakoa gauzatzeko lanez arduratuko da, baita aipatutako askotariko publikoengana iristeko informazio edukiak eta albisteak sortzeaz ere. ZIUR Fundazioaren, bozeramaileen eta komunikabideen arteko komunikazioa erraztuko du.

Lizitatzaileak pertsona bat izendatu beharko du, publiko desberdinekiko elkarrizketa kudeatzeko. Pertsona horrek komunikatzeko bideak irekiko ditu xede publiko desberdinen eta hedabideen artean, eta,

une guztietan, zerbitzuaren arduradunaren (lizitatzaileak finkatuaren) laguntza eta gainbegirada izango du.

Figura horrek honako eginkizun hauek izango ditu:

- Zuzeneko harremana ZIUR Fundazioaren zuzendaritzarekin.
- Komunikazioaren inguruko aholkularitza eta planifikazioa.
    - Komunikazioari eta Harreman Publikoei buruzko kontsultak. Komunikaziorako eta hedabideetarako irizpide orokorra ezartzea, tokiko, estatuko zein nazioarteko mailan.
    - Komunikazio gakoak identifikatzea.
    - Komunikatuak askotariko interes taldeen arabera egokitzea.
    - Komunikaziorako hileko egutegi bat sortzea, ZIUR Fundazioaren laguntzaz.
    - Aginte koadroa sortzea.
- Hedabideekiko harremanak.
    - Webean argitaratzeko albisteak idaztea.
    - Hilean prentsa ohar bat idaztea.
    - Prentsa deialdiak eta prentsa oharrak hedabideetara bidaltzea, jaso izana egiaztatzea, harreman pertsonalizatua kazetariekin.
    - Gure intereseko hedabideetako kontaktuak biltzen dituzten datu baseak sortu eta eguneratzea.
- Hileko balioespen txostenak (Press clipping). Hedabideetara egindako bidalketa bakoitzaren, ekitaldi edo ekintza bakoitzaren jarraipenerako txosten kuantitatiboak egitea.
- Comunity Manager: hilean behin edukiak sortzea eta Twitter eta LinkedIn plataformetako profilak dinamizatzea.
- Emaitzak hilean behin berrikustea.

Krisi kudeaketa: espero ez ziren eta ZIUR Fundazioaren ospea edota bere langileen profesionaltasuna kalte dezaketen egoerak bideratzea. Krisi plana abian jartzea eta aplikatzea, erakunde eskudunekin batera.

III. METODOLOGIA ETA LAN PLANA

Enpresa lizitatzaileak bai metodologia, bai lan plana eta ZIUR Fundazioaren Komunikazio Plana garatu eta betetzeko burutuko dituen ekintzak barnean hartzen dituen proposamena egin beharko du.

ZIUR Fundazioaren Komunikazio Planak hainbat ekintza plan jasotzen ditu, besteak beste, komunikazio estrategia garatzeko ekintzak eta komunikazio eta prentsa kabinetea garatzeko ekintzak. Komunikazio Planean zehaztutako ekintzak orientatzeko baino ez dira, eta aldatu ahal izango dira, zerbitzua ahalik eta hoberen emateko egokitzat jotzen bada. Hala ere, horretarako, ZIUR Fundazioak izendatutako kontratuaren arduradunak baimena eman beharko du aldez aurretik.

ZIUR Fundazioak, lanen garapena eta jarraipena errazteko, zerbitzuaren beharren arabera, enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio ezinbestekotzat joko dituen dokumentu guztiak aurkez ditzan eta zerbitzua behar bezala garatzeko beharrezkotzat joko diren lan- edo informazio-bilera guztietan parte

har dezan; bilera horiek aurrez aurre eta/edo era telematikoan egin ahal izango dira, adjudikatzaileak erabakitako moduan.

Dokumentu eta jarduera guztiak elebitan egingo dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

Halaber, hizkuntza, irudiak eta edukiak modu ez-sexistan eta ez-androzentrikoan erabiliko direla bermatuko duten komunikazio politikak aplikatuko dira.

ZIUR Fundazioak edozein unetan -kontratua gauzatzen hasi aurretik edo gauzatu bitartean- errefusatu ahal izango ditu.

IV.- LANEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA

Enpresa esleipendunak lanen garapenari buruz ZIUR Fundazioari dagozkion ikuskatze- eta kontrol-lanak egiten utzi beharko dio, jasotzen dituen oharrak eta gomendioak zehatz-mehatz betez.

Edonola ere, ZIUR Fundazioak erabakiko du segimendu modua aldatzea (bilerak, aktak, txostenak, …) beharrezkotzat jotzen badu.

Era berean, kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, lan-bileretara edo informazio-bileretara joateari dagokionez. Betebehar hori bermealdia amaitu arte mantenduko da.

Donostia, 2024ko azaroaren 12a.

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

María Penilla Azcuenaga

Firmado digitalmente por MARIA PENILLA AZCUENAGA el día 12/11/2024 con certificado emitido por AC DNIE 004